

# → AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 4.atala


DATA: 2024/05/03

## GUREAN

### GOAZEN TXOU

Aurtengo Goazen Txou lehiaketa martxan dago dagoeneko! Izen-ematearekin hasi ginen eta orain koreografiak prestatzeko garaian gaude. Goazen 10.0 telesailaren kanta erabiliko dituzte LH eta DBHko ikasleek, "Zoriontasuna", "Zurekin batera", "Muxu batekin" eta "Egin dezagun dantza", besteak beste. Udaberriarekin batera, euskal musikak hartu ditu gure ikastolako txoko guztiak.

13 bat taldek hartuko dute parte lehiaketan. Finalurrekoak maiatzaren 20tik 24ra egingo dira ikastolan eta final handia ikastolako jaiaren egunean, ekainaren 2an, hain zuzen ere. EZ GALDU!



## GURE INGURUAN

### IDIAZABALGO GAZTA AZOKA

NOIZ: Maiatzak 4 eta 5

Asteburu honetan denboraldiko gazta berria dastatzeko lehen aukeretako bat eskainiko du Gazta azokak.

1998. urtean antolatu zen lehen aldiz azoka hau. Euskal Herriko artzainek egindako gazta sustatzeko helburuarekin. Artzaintza eta gaztagintzaren atzean dagoen lana eta kultura babestu eta balioan jartzea dira gakoak.

Bai larunbatean, baita igandean ere, hainbat ekintza antolatuta daude.



INFO+:



### EMUSIK 2024. MUSIKA ETA DANTZA JAIALDIA

NOIZ ETA NON: maiatzak 2-5, Blas de Otero plazan (Donostia). DOAKO SARRERAK.

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako ikasleek hartuko dute parte. 25 taldek joko dute agertokian eta urtean zehar ikasitakoa praktikan jarriko dute, bandak, abesbatzak, konboak eta orkestrak barne.

Igandean, maiatzaren 5ean, Dantza Klasikoko, Dantza Garaikideko eta Euskal Dantzako ikasleek ikasturtean zehar landutako hainbat emanaldi aurkeztuko dituzte. Dantzak amaiera emango dio musikaz, dantzaz eta komunitatez betetako asteburuari.

INFO+:

